BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1.- AURREKARIAK.

2019ko otsailaren 21ean, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea onartu zen; Lege horrek, besteak beste, beren instalazioen energia-kudeaketara eta -informaziora behartzen ditu tokiko administrazioak. Lege hori betetzeko, 2020an, Debabarreneko udalerri guztietarako (Deba, Elgoibar, Eibar, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze) plataforma eta energia-behatokiaren zerbitzua kontratatu zen. Plataformaren eta behatokiaren kontratazio-zerbitzua 2022ko maiatzean amaitu zen.

Testuinguru horretan, energia kudeatzeko plataforma bat azpikontratatzea planteatzen da, Debabarreneko zortzi udalerrietako udal langileek udal kontsumoen jarraipena eta kudeaketa energetikoa egin ahal izateko. Era berean, legeak ezarritako komunikazio-baldintzak betetzeko, herritarrei zuzendutako atari bat eskatzen da, udalerri eta eskualde bakoitzeko energia-kudeaketari eta -kontsumoari buruzko informazioa emateko (zentzu zabalean).

2.- PROIEKTUAREN AZALPENA

Xedea da energia kudeatzeko eskualde-plataforma eta behatokia garatzea Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze udalerrietarako. Eskualde-plataforma bakarrean bateratutako energia-kudeaketako aplikazioa da (kanpoko laguntza duen energia-kontabilitateko softwarea), gara daitekeena, eta udal bakoitzak bere atal propioa eduki ahal izango duena. Udal bakoitzak bere atalera sartzeko sarbide integrala izan beharko du, eta eskualdeko kudeatzaileak udalerri guztien ataletarako sarbide integrala izango du. Kasu guztietan, udal bakoitzeko bi erabiltzaile-maila eta eskualdeko arduradunarentzako bi erabiltzaile-maila eskaini beharko ditu tresnak, Eibarko Udalaren kasuan izan ezik, bi kudeatzaile izango baititu honek, bata Eibarko Kirol Patronatuari eta erakunde horren instalazioei lotutakoa, eta Udalaren gainerako instalazioei lotutakoa bestea.

Halaber, beste atari edo atal bat ere jarriko da, non herritarrek energia-adierazgarri nagusiei buruzko informazioa aurkitu ahal izango duen, EAEko bi hizkuntza ofizialetan.

Honako hauek dira helburuak:

- Webgune bidezko zentralizatutako kudeaketa-tresna bat izatea, Debabarreneko udalei (Deba, Eibar, Ermua, Elgoibar, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze) eta Debegesari EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen ondoriozko kontsumo-inbentarioko eta –kontroleko errekerimenduak betetzea ahalbideratuko diena.

- Eusko Jaurlaritzaren jasangarritasun energetikori buruzko 4/2019 Legearen publizitate-eskakizunak betetzea, energiari buruzko informazioa herritarrekin partekatzeko aukera emango duen atari edo atal publiko baten bitartez.

- 4/2019 Legeari lotutako Energia Jarduketarako Planak ebaluatu, eguneratu eta haien segimendua egitea, eta Energia Jasangarritasunerako Batzordeak dinamizatzea.

- Kontsumoen monitorizazioa, hornidura-potentzien optimizazioa eta energiaren autokontsumorako instalazioen kontabilitatea eta ikuskapena.

- Energia-informazioko biltegia

Gutxienez udalek energiaren ikuspegitik kudeatu beharreko elementu guztien energia-kudeaketa eta -jarraipena ahalbidetu beharko du, EAEko energia-iraunkortasunari buruzko 4/2019 Legearen arabera (eraikin publikoak eta instalazioak, argiteria publikoa, parke mugikorra…), baita ur-kontsumoei buruzko informazioa ere.

HORNIDURA KOPURUA

Udala	Elektrizitatea	Gasa	Bestelako erregaiak *	GUZTIRA
Deba	70	10	10	90
Eibar	207	14	39	260
Elgoibar	145	8	16	169
Ermua	85	19	17	121
Mallabia	40	4	6	50
Mendaro	25	5	2	32
Mutriku	80	7	12	99
Soraluze	42	12	4	58
GUZTIRA	**694**	**79**	**106**	**879**

Aurrekontua udalerrika banakatuta egon beharko da, eta kudeaketako elementu gehigarriak sartzearen kostua zenbatesten duen atal bat izan beharko du. (eraikinak, argiteria-kutxak, ura, ibilgailuak…).

3.- DEBEGESARI EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK. ESKA DAITEZKEEN KALITATE-MAILAK ETA PRESTAKUNTZA PROFESIONALAK

Planak honako alderdiak planteatu behar ditu, gutxienez:

3.1-.Martxan jartzea.

EAEko bi hizkuntza ofizialetan egon beharko da softwarea, eta ondorengo funtzionalitateak izan beharko ditu gutxienez:

- Hodeian egotea, aurretiazko instalaziorik behar ez izatea. Webgune bidezko sarbide jarraitua.
- Fakturazioaren karga eta baliozkotzea: Hileko artxibategiak modu automatizatuan sartzea eta egiaztapen zorrotza egitea.
- Analisi automatizatua eta neurrien identifikazioa.
- Txostenak sortzea: Automatikoki sortu beharko ditu txostenok, eta informazio garrantzitsuena jaso beharko dute.

- Alarma energetikoak: Energia-jokabidearen etengabeko analisia, desbideratzea eta jarduteko proposamenak identifikatuz.
- Energia-gastuaren kontrola
- Energia-kudeaketa: Energia-kontsumoaren xehetasuna, kontsumoen bilakaeraren alderatze-analisiak, energia-eraginkortasunaren adierazleak. Udalaren, elementuaren (eraikina, kutxa) eta polizaren araberako bistaratzea eta analisia.
- Kudeaketa ekonomikoa: Udalaren, kostu-gunearen edo polizaren araberako gastu-xehetasuna eta aurreikuspena. Hirugarrenei fakturatzea.
- Karga-kurben analisia eta bistaratzea: Ordutegi-kargen kurbak bistaratzea eta kontsumoaren araberako fakturazioa baliozkotzea.
- Energiaren eskualdeko behatokia, Debabarrena eskualdeko udalerrietako energia-datuak alderatuta bistaratzeko aukera ematen duena.
- Herritarren informaziorako eskualdeko ataria udal webguneetan, sarbide irekiarekin.
- Datuak BEGen emisioak kalkulatzeko tresnetara esportatzea.
- Excel formatuko datu-baseak eta txostenak esportatzea.
- Tarifa guztietarako kontratatutako potentziak optimizatzea, goi-tentsiokoak eta maximetrorik gabeko 2.0td-ak barne.
- Eraikinen fitxak eta horniduren fitxak betetzea, informazio deskribatzaile guztiarekin eta kontsumo eta gastuen datuekin.
- Energia-adierazleak, gastua eta BEGen emisioak udalerri, udal eta elementu mailan (eraikina edo koadroa).
- Energia-ikuskapenei eta -sailkapenari buruzko informazioa.
- EAEko bi hizkuntza ofizialetan eskura daiteke.
- Hornidura bakoitzari lotutako dokumentazio energetikoaren biltegia.

Programak garatzeko aukera eman behar du, energia-merkatu aldagarriaren bilakaerara egokitzeko modua bermatzeko.

Halaber, lizentzia ere prezioan sartuta egon behar da. Plataforma eta ataria erabat erabilgarri egon beharko dira (funtzionalitate guztiak, dagozkien datuekin), kontratua formalizatzen denetik hilabete bateko gehienezko epean.

Udalerri bakoitzak banakako kudeaketa egiteko aukera izango du, eta, horren bidez, ustiapen bereizia egin ahal izango da Debaren, Debaren eta Itziarko toki entitate txikiaren kasuan, eta Eibarren, Eibarko Udalaren instalazioen eta udalerriko Kirol Patronatuaren artean. Herritarrei informazioa emateko atariei dagokienez, informazio guztia biltzen duten eskualdeko bederatzi gehi bat planteatzen dira.

3.2. Tresna erabiltzeko trebakuntza

Udaletako eta Eskualdeko Garapen Agentziako partaideak tresna kudeatzeko gaituta egon beharko dira; horrela, bada, prozesuaren barruan trebakuntza aurreikusi beharko da.

3.3.- Informazioaren kudeaketa.

Oso erraza izan beharko da informazioaren kudeaketa.

3.4.- Eskualde- eta toki-mailako energia-emaitzen txostenak. Eraginkortasun-neurriak hartzea eta horien ebaluazioa

Udalerri bakoitzeko ekipamenduen eta argiteria publikoaren kontsumo xehatuen energia- eta ekonomia-analisiaren balantzearen informazioak eraikinetan eta argiterian hartu beharreko neurriak identifikatzea ahalbideratuko du, bai eta, energia-, ekonomia- eta emisio-aurrezpenean eta -eraginkortasunean aurrerapenak egiteko denbora errealean jarduketak egitea ere. Lana esleitzen zaion lantaldearen ardura izango da eginkizun hori.

3.5. Energiaren ataria eraikitzea

Debabarrena inguruko beste udalerri batzuekiko *benchmarking* prozesua ahalbideratuko du, adierazleak erabilita, herritarrei etengabe bistarazteko. Web-atari hori EAEko bi hizkuntzatan egon beharko da.

Informazio energetikoaren sisteman gordetako informazioaren zati bat bistaratu ahal izango du atariak, gutxienez honako hau:

- Udal osoko BEGen guztizko balioak eta kontsumoaren, gastuaren eta emisioen adierazleak, eta horien bilakaera denboran.
- Eraikin bakoitzaren kontsumoaren, eraginkortasunaren eta aurrezkiaren rankinga. Eraikin bakoitzari oinarrizko linea berezi eta propio bat esleitzen ahalko zaio.
- Eraikin bakoitzaren kontsumo-, gastu- eta emisio-balioak eta urteko eta hileko bilakaera. Eraikin bakoitzaren oinarrizko lerroarekiko aurrezkiaren kalkulua.
- Ordu-kontsumoak eta sorkuntza fotovoltaikoa bistaratzea.

Energia-atariak energiari buruzko mikrogune monografiko gisa funtzionatuko du, udal bakoitzaren webgunean. Horrez gain, eskualde mailako energia-atari bat ere izango du, parte hartzen duten udal guztien energia-informazioa aldi berean ikusi ahal izateko. Atari horren ezaugarriak udal bakoitzeko herritarren energia-atarirako deskribatutakoen antzekoak izango dira.

3.6. Txostenak sortzea

Txosten automatiko globalak eta banakoak egiteko aukera eman beharko du. Txostenak EAEko bi hizkuntza ofizialetan sortzeko aukera egon beharko da (euskaraz eta espainieraz). Halaber, deskargu-txostenak modu automatikoan egiteko aukera eman beharko du.

3.7.- Energiaren plangintza eta jarraipena

Aplikazioak funtzionalitate hauek izanen ditu eskualdeko udal bakoitzak izan ditzakeen energia planen plangintza eta jarraipenerako, eta bereziki:

- Udal bakoitzak bere instalazioetarako energiaren eta klimaren arloan prestatzen dituen planak kontsultatu eta kudeatzea. Horrekin lotutako eraikinetan izaera eta irismen desberdineko planak, neurri-motak edo horiek gauzatzeko epea kudea daitezke.
- Aplikaziotik kudeatzen diren planen ezarpen orokorraren eta neurriaren ebaluazio kuantitatiboa (%), eta gaikako arloen eta erantzukizunaren araberako azterketa segmentatua.
- Egindako jarduera-tipologien arabera egituratutako erregistroa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Iraunkortasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen ondoriozko Energia Jarduketarako Plana kontsultatu, kudeatu eta haren jarraipena egitea.
- Jarduketen erregistro egituratua eta Energia Jarduketarako Planaren ezartze-mailaren ebaluazioa.

3.8 Sorkuntza fotovoltaikoaren kontabilitatea eta jarraipena modu zentralizatuan.

Sorkuntza fotovoltaikoaren kontabilitateko eta jarraipeneko modulua eginen da, energia fotovoltaikoaren ordu sorkuntzako datuak kargatzeko zerbitzua, 3 instalazioren balantzea eta funtzionamenduaren ordutegiaren ikuskapena barne. Inbertitzailearen datuak biltzeko eta modulua betetzeko zerbitzua eskainiko da, kontratua indarrean dagoen bitartean udalak zabaltzen dituen autokontsumorako instalazio guztietarako. Instalazio horiek udal bakar batenak izanen dira.

3.9 BESTELAKOAK

Proposatutako sistema azken hiru urteetan 40 udal administrazio publikotan baino gehiagotan ezarri behar da.

Lizitatzaileek egiaztatu beharko dute sistema informatikoa gutxienez administrazio publikoetako 4.000 hornidura-puntutan ezarri dela.

Era berean, proposatutako softwareak fakturazioa Espainiako eta/edo EAEko lurraldean indexatutako tarifekin baliozkotu duela egiaztatu beharko dute, beren berezitasun espezifikoak kontuan hartuta. Era berean, gaur egun 34 udalerri baino gehiagotarako herritarren energia-atariaren hornidura justifikatu beharko da (funtzionatzen ari den energia-atarira sartzeko URLaren bidez (Interneteko helbidea) egiaztatuko da), bereziki balioetsiko da energia-iraunkortasunari buruzko 4/2019 Legeak eragindako udalerriak izatea. Sistema informatikoari dagozkion egiaztapenak sistema ezarri duten entitateek emandako ziurtagirien bidez eginen dira, enpresa lizitatzaileak edo haren hornitzaile teknologikoak zuzenean emanda.

Hobekuntzatzat hartuko da udal desberdinetako eraikinak monitorizatzeko aukera eta instalazio fotovoltaikoen kontabilitate energetikoaren zerbitzua handitzeko aukera, baldin eta 3.8 puntuan planteatutakoa ez den beste udalerri batean aplika badaitezke.

Eskaintza baloratzeko, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:
Egin beharreko lanak azalduko dituen **memoria**, gutxienez alderdi hauek jaso beharko dituena:

- Proposamen teknikoa eta metodologikoa.
- Abiarazteko prozeduraren deskribapena, besteak beste, sistema abian jartzeko behar diren datuak, zereginak eta erantzukizunak jasoko dituena.
- Softwarea: Deskribapena, funtzionalitateak, irudiak eta sistema ulertzen lagun dezaketen laguntza-tresnak (bideoak, tutorialak, etab.).
- Energia-iraunkortasunerako Ekintza Planen segimendua eta kudeaketa
- Adituen aholkularitza: zerbitzuaren irismena eta deskribapena.
- Herritarrentzako eta udalentzako energia-ataria: edukien proposamena
- Mantenu-kostuak eta modalitateak (taldekatua, aholkularitza-mailak…)
- Prestakuntza Plana
- Kronograma, esperientzia, lantaldea, benchmarking-gaitasuna eta antolakuntza.
- Ingurumen-ziurtagiriak.

Beharrezkoa da dokumentazioa posta arrunt bidez (sarrera-zigiluarekin edo garaiz aurkeztu izanaren bermearekin) eta posta elektroniko bidez bidaltzea, ekainaren 24ko 14:00ak baino lehen (aitziber@debegesa.eus).

4.- ZERBITZUA EMATEAN IGAROTZEA

Zerbitzua behin betiko esleitzen denetik 30 egun naturaleko epean jarri beharko da abian, gehienez ere. Benetako abiaraztetzat joko da eskaintzan aurreikusitako funtzionalitate guztien funtzionamendua, datu guztiak beteta.

5.- GIZARTE-, INGURUMEN- ETA HIZKUNTZA-BALDINTZAK, ETA BALDINTZA BATZUK

DEBEGESA emakume eta gizonen berdintasuna sustatzearekin konprometituta dago, eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Debegesaren Plana ezarrita gauzatu du konpromiso hori.

Aurkezten diren proposamen guztietan, beharrezkoa izango da hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea, gai hori kontu handiz zainduz. Oinarrizko jarraibide batzuk aurki daitezke esteka hauetan:
Espainieraz: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/pub_folletos/es_emakunde/adjuntos/lenguaje_no_sexista_es.pdf
Helbide honetan, testuak irizpide horren arabera zuzentzeko tresna bat aurki daiteke:
http://www.tincluye.org/
EGOKI IRITZIZ GERO APLIKATZEKOA: Eskaintzak genero-ikuspegia jaso beharko du, emakumeen eta gizonen berezko beharrak berariaz islatuz eta horiei erantzunez; gainera, sexuaren arabera banakatu beharko da informazio guztia. Oinarrizko jarraibide batzuk aurki daitezke esteka honetan:

http://www.kideitu.euskadi.net/s53-6532/es/contenidos/informacion/guias_herramientas/es_10888/adjuntos/introduccion_mainstreaming_andalucia.pdf

Onartzailea:

Juan Angel Balbas Egea

15930185V JUAN ANGEL BALBAS (R: A20098349)
Firmado digitalmente por 15930185V JUAN ANGEL BALBAS (R: A20098349)
Fecha: 2022.06.09 12:40:03 +02'00'